

IGANDEETAN IRTETZEN DA

BIZKAIKO ETA GUIPUZKOAKO EUSKERAZ EGUINA

DOMEKETAN URTETEN DAU

1902-ko Agorrilla-ren
10.ªEuskalerrian, iru peseta urtean.—Erdalerrian, sei peseta urtean.
Guei Bakooña, Chakur chiki bat.1902-ko Agorrilla-ren
10.ª

IBAIZABAL-en Echea: Bilbon—Dendari Kalean (Calle de la Tendería) 19—Jaun José Astuy-reuean.
Eskutitz edo karta guztiak zuzendu beitez artezkariaren echera: Tívoli, letra B, 2.º derecha.

ERRETERITIK (1902. urteko Madalenak)

Enrike ELIZECHEA

Izenburu honekin eta aipatu urteko jaiei buruz, gure herriko kronika idazten zuen ENRIKE ELIZECHEA idazle euskalzaleak, IBAIZABAL aldizkarian.

Bere osotasunean dakargu kronika hori OARSO-ren orrietara, eta ortografia eta edukiaren aldetik berean mantendu dugu.

Artikulu oso interesgarria iruditzen zaigu, batetik ospakizunen notizia garbia ematen digulako, alor horretan gure jakin mina asetuz; eta bestetik, ageri diren balorazioak garaiko giroaren adierazgarriak gerta dakizkigukeelako.

Bukatu dira erri ontan Santa Maria Magdalenaren eguna ospatzeko prestatu ziran festak. Illaren ogueiean izandu ziran musika eta zezenkoak. Oguei ta bat arratsean ibilli zan musika kale guziak barrena juaz, aditzera ematen zuela urrengo egunean zala gure Santaren eguna. Urrango goizean ere jo zuen ala berean. Guero izandu zan meza nagusi ederra orkeztarekin eta koruan kantari onakin. Meza ondoren berriz musika erriko-eche aurrean. Arratsaldean zezenkoak toreatu nai zituztenentzat eta musika sortziak arte. Bederatzietan suzko errubedak, tamboliña eta musika berandu arte. Illan ogueita iru arratsean ibilli zan kalei-kale arrigarrizko prozezio edo kabalgata bat. Ala zaldizkoak nola oñezkoak ziran jantzikai eder ta baliosuakin. Uri-aurreko plazan sartu eta kantatu zuten, musikak lagunduta, lanaren gañian moldatutko dokanta edo himno bat, aiñ poliki, non gende guziak bere chalo jotze aundiakin adierasotzen zuen berriz kantatzea nai zuela, eta ala eguiñ bear izandu zan.

Illan ogueita ta labean izandu ziran bi chalupakin apostuak; emakume gastiak batian eta zarrak bestian arraundari zirala, eta abek galdu zuten. Eguiñ zan bestia guizasemeakin eta au ere oso polita eta aski berdiña guertatu zan. Denak ziran Pasai San Juan-goak.

Guero eguin zan bestonga edo kukaña joko ia ibaian, barrika erdietan sartutako guizonan apostua eta mutill gasteak igueri ibiltzeko ate batzuek. Musikak gabarra batetik jo zuen eta gende guzia ederki jostatu zan farra ugari eguiñaz.

Andikan joan guiñan plazara bersolarien jostaguda bat ikustera. Jarri ziran aurkez-aurke Chinchua eta Telleguichiki eta Sareaburu eta Olegario. Don Juan José Zapirain-ek bersolari oso izendatua, eman zuen asiera eta an entzun guenuen berso-talde ederra, Aiuntamentua onratuaz eta gure izkuntza maitagarria goi-



talchatuaz. Gendea oso isil egondu zan eta chalo asko jo zuen.

Guizon itzusien bilkada eguin zan guero eta "Timita" esaten dioten batek irabazi zuen saria. ¡Etzuen gendeak far guchi eguin alako arpegui ederrak ikusita!

Arratzean berriz suzko errubedak eta zuzko-zezena, musika eta tamboliña amaika terdiak arte.

Santiago egunean Aiuntamentuak arrendetu edo gonbidatu zituen bazkaltzera musika eta orfei-ko gende guzia, kabalgata ain ederki eguiñ zalako eta zumardi bateko arbol ederren azpian ipiñi ziran maiak eta bazkaldu zuten.

Maiazkenetan azaldu ziran alkatea eta Aiuntamentuko batzuek eta erregidore jaun Urgoitik itz batzuek eguiñ zituen, denari ezkerrek emanaz alako festa ederra antolatu zutelako, animatuaz aurrera ere guztiak batu eta jarraitu zezatela anaitasun aundiarekin, bada bakarrik modu onetan izango da pakea gure artean eta aurtan bezelako festa ederrak eguiteko gaia.

Ontzat artuak izandu ziran itz abek eta chalo asko aditu zituen

Urgoiti jaunak.

Kafia artzen ari zirala pensatu zuten sortziko bat ateratzia eta (euskaldunak izaki) esan ta eguin Ramón Errazquin aurren esku eta Timoteo Zalacain atzen esku zirala atera zuten, eta an ikusi ziran mutil languilleak, neskacha famili aberatzetakoakin eta mutill aberatzak neskacha pobreakin dantzan eta jorra nola izaten diran gauzak! ez mutill eta ez neskacha aberatzak etzuten ezer ere galdu pobreakin naste dantzatu ziralako baizikan irabazi zituzten aben estimazioa eta maitetasuna. Orla bear litzake beti izan. Eskudantza orrekin eta musika eta tamboliña illundu arte jotzeakin, bukatu ziran aurtengo festak.

Errian gende asko izanagatik eta inguruetaoetatik ere asko etorriagatik, ez dira mutur-jokalari batzuek ere izandu; guztia pakea eta umore ona: berri ona da au eta beragatik poztutzen gerra.

Eta orain bukatzeko itz bi. Festa ederrak ikuzi ditugu eta gendea chit kontentu guelditu da, baño... gauza bat etzaio ondo iduritu: Magdalen egunean sermoia erderaz eguita. Nere (28 garren gueian) esanak ez dute ezertarako balio izandu eta badakizute zer guertatu zan? Jakiña zegona. Genderik gueiena (bada ez dira izango eun lagun sermoi arren arrazoia emango lutekenak, eta eliza choil betia zan) egondu zan sermoiguilleari beguira zer entzuten zuen etzekiela. Sermoia asi zanean gende asko irtentzan elizatik kanpora eta... ¿zein uste dezute atera zirala lendabizi? ¿Erdaldunak!... Oientzat eguin sermoia, eta berak kanpora eta euskaldunak aoa zabaldua bertan ezer ere aditzen etzutela. ¿Polita baita au?...

Esan dirate nere karta IBAIZABAL-ek publikatu zueneko sermoia erderaz enkargatu zala, eta eziñ zitekiela aguindu ori gue-deitu edo autsi; bañan badakit lendabizi sermoia oitura zan bezela euskeraz eguiteko esan zitzaiola apaiz jaun bati, eta guero norbaitek pensatu zuenean erderaz eguin bear zala, esan zioten eskusatzeke bada esantako pensamentu berri ori zuten, eta ori jakindu nuenian ezkribatu nuen karta hura euskerazko sermoian aide. Orain bada; lendabiziko aguindua autsi zuenak ¿ez altzezakean bigarrena ere ala berian eguin, nai izan bazuen, jakiñik orrela

gende geienan gustoa eguingo zala? Ala uste det nik eta nerekin batian erri guztiak. Zeñen kulpa den ezdakit, baña badakit gendeak chartzat artu duela. Eta ez bakarrik gendeak, baizik kanpoan diotenez sermoian lendabiziko itzak erderaz entzun zituenean Santa Maria Magdalenak, asi omentzan negarrez eta gueroztik ala omen dago denbora batian bere pekatuakgatik egondu zan bezela, orain, dudarik gabe, euskerari gorrotoa dion norbait dala merio.

Nola eguiña dagon eta aurtengoak ez daukan erremediorik, ezkatu dezaigun lenago berak Jaunari eskatu zion bezela barkazioa, barkatua izan dedilla gure izkuntza maiteari ofensa izugarri ori eguin diona erriko festegunian, baldin aguertzen bada bere eguiazko damua eta promezten badu ez duela gueaigo orrelako lanik eguingo euskera euskera dan arte.

